

GIL 100 Ogoñoiko labar bertikala



Ogoño lurmuturraren mendebaldea, Laga hondartzara doan errepidetik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 24' 38,34" N
Long.: 2° 38' 32,62" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 528.952,94 m
Y: 4.806.480,57 m



Nola iritsi

Utzi automobila Elantxobeko hilerrian, eta hasi ibiltzen Olaeta auzotik aurrera, IM norabi-dean talaia aldera doan bidezidor batetik.



Ogoñoko lapiazaren xehetasuna.

Deskribapena

Ogoño lurmuturra Behe Kretazeoko kareharrizko bloke bat da (Urgondarreko faziesa). 90 ha-ko azalera du, eta labar bertikal ikusgarriak. Gogortasun handia du harea- eta lutita-materialekin alderatuta, bigunagoak baitira. Ogoñoko karstari asko eragiten dio kostaldeko kareharri-azalaramendu bat izateak, nola forma exokarstikoari, hala forma endokarstikoari. Bertako barrunbeen % 30 baino gehiago zuzenean daude erlazionatuta itsas modelaketarekin.

Kanpotik begiratuta, kareharrizko lautada bat da, kantauriar artadi sarri batez estalia, ipar eta ekialdean labar malkartsu askoak dituela, eta, hego-hego-mendebaldean, Atxurkuluko tontorra (307 m). Ogoñoko talaia (280 m) itsaslabarraren gainean dago, mendigunearen mendebaldean, eta toki horretako irudirik adierazgarriena da. Kostaldearen begiratoki aparta da.

Gainazalean, ez da ageri azaleko ur-jariapenik lapiaza oso apurtuta dagoelako. Kareharrigune honetako tokirik interesgarrienetako batzuk dira, besteak beste, ekaitz-txorien kobazuloa (garrantzi ornitologikoa), Ogoñoko Landa eta Ortotxu kobazuloak (interes arkeologikoa), Kantauriko Begia (labarreko ipar paretan zintzilik dagoen aho handi bat) eta Ogoñoko itsaspeko kobazuloa (garapen handia du ur azpian).



Kantauriko Begia. Mendigunearen iparraldean dagoen kobazulo ikusgarri eta iristezina. Ogoñoko labarraren alboa mendebaldetik ikusita.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 92, GIL 14, GIL 104.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 99, GIL 101, GIL 102, GIL 103, GIL 14, GIL 15.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- ADES (Saguzarrak kirol-elkarte espeleologikoa) (2010): *Catálogo de cuevas y simas de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 547 or.
- Mendiá, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritza, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>.
- Mendiá, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz, G., González, J. eta Albizu, X. (2011): *Guía de lugares de interés geológico de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 341 or.